

I. GRADUKO MENDEBASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO BABESTUTAKO APARTAMENTUAK EDO ETXEBIZITZAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Egoitza edo tutoretzapeko apartamentu baterako sarbidea

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

65 urtetik gorako pertsonak, **mendetasun-arriskuan** daudenak edo I. graduako mendetasuna dutenak. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 25 eta 49 bitarteko puntuazioa.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Adina (**65 urte edo gehiago**).

I. graduako mendekotasun. (Mendekotasuna baloratzeko baremoan 25 eta 49 bitarteko puntuazioa.).

Zertan datza?

Iraupen luzeko ostaturia, mendekotasuna duten adinekoentzat (I. gradua, MBBn 25 eta 49 bitarteko puntuazioa) ([1.9.3 eta 1.9.4 fitxak](#)).

Intentsitate txikiko zerbitzua da, eta erabiltzaileei laguntzeko funtzio jakin batzuk egiteko langileak ditu (tutoretza, gainbegiratzea, laguntza, arreta pertsonala, etxeko laguntza, etab.). Haren helburuak dira komunitatean irautea erraztea, autonomia pertsonala hobetzea, isolamendua saihestea eta segurtasun sentimendua indartzea. Bizikidetzak-unitateari eusteko, eskatzailearekin batera sar

daitezke zerbitzuan: ezkontidea edo izatezko bikotekidea, ohiko bizikidetza-harremana duena, eta, salbuespen gisa, haren ardurapean dauden seme-alabak. Bi aldaera ditu (edo bien arteko konbinazio bat):

1. **Tutoretzapeko apartamentuak:** zerbitzu komunak dituzten apartamentu independenteen multzoa, hautazko erabilera dutenak.
2. **Etxebizitza komunitarioa:** ekipamendu kolektiboa, etxebizitza arruntak dituen eraikin batean, beste gizarte-ekipamendu batzuekin edo eraikin berezi batean koka daitekeena.

Norentzat?

Mendekotasuna duten adineko pertsonak (I. gradua, MBBn 25 eta 49 bitarteko puntuazioa), ostatu hartzeko aukera egokia behar dutenak eta/edo bizikidetza- edo bakardade-arazoak dituztenak eta/edo eguneroko jarduerak egiteko laguntza behar dutenak.

Zein da zerbitzuaren kostua?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

65 urte edo gehiago izatea.

I. graduko mendetasun (MBBn 25 eta 49 arteko puntuazioa).

Intentsitate txikiko laguntza behar izatea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)